## Ahalera - *Nor*

- **Modu potentzialaren aditz nagusia** aditzoina izaten da euskara batuan (***etor, ibil, ekar, geldi, har, joan, egin***...). Hala ere, ezezkoetan eta euskara mintzatuan batez ere, maiz aditz-partizipioa erabiltzen da.

- **Laguntzailearen ezaugarria**, berriz, ***"-ke"*** morfema da:

| | |
|---|---|
| **Etor** daite**ke** | *(puede venir)* |
| **Ekar** deza**ke** | *(puede traer)* |
| Ezin daite**ke etor**(ri) | *(no puede venir)* |
| Ezin deza**ke ekar**(ri) | *(no puede traer)* |

- **Ahalerak hiru denbora ditu**:
  - orainaldi arrunta: **Etor daiteke** *(puede venir)*
  - orainaldi leuna: **Etor liteke** *(puede/podría venir)*
  - iragana: **Etor zitekeen** *(podía venir)*

- Aditz hauek *'puntualak'* dira eta **"AHAL"** perifrasiaren parekoak dira:

Nahi duzunean ***joan zaitezke***. *(puedes irte)*
Nahi duzunean ***joan ahal zara***.

Jende guztia ***sar daiteke***. *(puede entrar)*
Jende guztia ***sartu ahal da***.

❖ **Forma**:

| | ORAINALDIA | | IRAGANA |
|---|---|---|---|
| | **arrunta** *(puedo)* | **leuna** *(podría)* | *(podía)* |
| **ni** | NAITEKE | NINTEKE | NINTEKEEN |
| **zu** | ZAITEZKE | ZINTEZKE | ZINTEZKEEN |
| **hura** | DAITEKE | LITEKE | ZITEKEEN |
| **gu** | GAITEZKE | GINTEZKE | GINTEZKEEN |
| **zuek** | ZAITEZKETE | ZINTEZKETE | ZINTEZKETEN |
| **haiek** | DAITEZKE | LITEZKE | ZITEZKEEN |

## ❖ Erabilera:

- Orainaldiko forma biak praktikan berdintsuak dira askotan:

| | |
|---|---|
| Nahi duzunean ***etor zaitezke***. | *(...puedes venir)* |
| Nahi duzunean ***etor zintezke***. | *(...puedes/podrías venir)* |

- Inpertsonala egiteko 3. pertsonak erabiltzen dira:

| | |
|---|---|
| Erre ***daiteke***? | *(¿se puede fumar?)* |
| Ezin egin ***daitezke*** argazkiak. | *(no se pueden hacer...)* |
| Ezin ***daitezke*** argazkiak egin. | |
| Sar ***liteke***? | *(¿se puede/podría entrar?)* |
| Erraz egin ***liteke*** hori. | *(eso se puede/podría hacer fácilmente)* |

- Esamolde batzuk sortzen dira potentzialarekin:

| | |
|---|---|
| ***Baliteke!*** | *(puede ser)* |
| ***Litekeena*** da. | *(es posible)* |
| Izan ***liteke***! | *(puede ser)* |
| Ezin ***liteke***! | *(no puede ser)* |